



Berrobiko 'Martintxo' baserria erre da

HUTSIK ▶ Kalte pertsonalik ez da izan inor ez zelako bizi bertan; animaliak atera ahal izan dituzte

BIAK BATERA ▶ Urtarrilean erre zen 'Seskea-berri' baserriaren ondoan dago erretako baserria ▶ 6



Martintxo baserria eskuinean, Seskea-berri ezkerrean. I.TERRADILLOS



Eusko Jaurjaritza, Partzuergoa, Udala eta Ikastolako ordezkariak atzo inaugurazioan. G.AZKUE

Haur Eskola inauguratu dute agintariek

ANOETA ▶ Irailaren 15etik lau haur izaten dira bertan hezitzaile batekin; oraindik badago Haur Eskolan izena ematea ▶ 4

TOLOSA ▶

Herriko baserrietako eta lantegietako tresna zaharrak

'Zaharkinak' ikusteko azken astea gelditzen da Ferialekuan ▶ 2-3



M.SOROA

ARESO ▶

Ehizerako postuen enkantea ari dira egiten

Larunbatean izango da esleipen saioa ▶ 7

KULTURA ▶

Nondik gatozen...

Baserriko tresneria, lanabesak, garraio sistemak, lanbide eta industrietako tresnak... horiek guztiak biltzen ditu Ferialekuan dagoen 'Zaharkinak' erakusketak; igandea bitarte, egunero izango da zabalik



Batez ere inaugurazio egunean bildu zen Ferialekura jendea erakusketa ikustera; ostirala bitarte izango da zabalik. I. ETXEBESTE

AITZPEA LEIZAOLA ▶ EGITASMOAREN SUSTATZAILEA

«Gazteei harridura sortzen diete tresnek; helduei, oroitzapenak»

Aldaba, Bedaio, San Esteban, San Blas, Urkizu, Santa Luzia... Tolosako auzo eta kaleetan bildutako objektuekin osatu dute Fermin Leizaolak, Juan Antonio Lejarzak eta Aitzpea Leizaolak *Zaharkinak* erakusketa. Azken horrekin, Aranzadi Zientzia Elkarte kidearekin, hitz egin du Hitzak proiektuaren inguruan.

Zer ikus daiteke Ferialekuan? Tolosako txoko askotan bildutako mila objektutik gora ikus daitezke; baserri giroko, kaleko eta industria arlokoak jaso nahi izan ditugu, hiru atal horiek biltzen direlako Tolosan. Kaskotik oso hurbil dauden auzoek: besteak beste, San Esteban, Santa Luzia eta San Blas auzoek, ezaugarri batzuk dituzte. Eta mendian barrena daudenean, Bedaiok, esaterako, bestelakoak. Herriaren orogra-

fiak ere eragina izan du tresnen bilketan.

Garai bateko Tolosa irudikatu nahi izan duzue, hortaz?

Tolosako iragana bakarrik ez, orduko eguneroko bizimodu ere islatu nahi izan dugu. Beste herri batzuren aldean hirigoa da, ordea, eta horrek baldintzatu egin du bilketa lana. Izan ere, tresna asko eraberritu egin dituzte, eta garai bateko ez arrastorik ez da geratu. Gainera, uholdeek ere eragina izan zuten, tresna asko desgertu edo hondatu egin zirelako. Hala ere, Tolosa osotasunean hartu nahi izan dugu; txoko guztietara joan gara eta denetik biltzen saiatu.

Bilketa lan handia egin behar izan duzue?

2003ko azaroan Aranzadi harremanetan jarri zen Tolosako Udalarekin, eta prestaketei or-



M. SOROA

duan ekin genien. Bilketa lanarekin geroago, abuztuaren hasieran, hasi ginen. Hilabetez jardun genuen objektuak biltzen, eta erakusketa bukatu bezain laster itzuliko ditugu jatorrizko lekura, prozesua ahalik eta laburren izanda tresnak gutxiago hondatzen direlako. Kontuan hartu behar baita jendeak tresnak eman ez, eta utzi egiten dituela.

**Zer nolako harrera izan du erakusketak jendearen alde-
tik?**

Jende gehiago espero genuen, baina etorri dena benetan gustura etorri da. Polita da ikustea zer nolako erreakzioak sortzen dituen erakusketak belaunaldi ezberdineko jendearen artean. Gazteei harridura sortzen dieten objektuek oroitzapenak ekartzen dizkiete helduei. Horixe ere bazen erakusketaren helburua.

Belaunaldien arteko ezberdintasuna ikustea?

Hori baino gehiago, gure kultura eta ondare materiala belau-naldiz belaunaldi pasatzea: zabalzea, ezagutzera ematea eta ahoz aho hedatzea, ahaztu ez dadin.

Bisita gidatua egingo duzu ostegunean. Zer azalduko diezu bertara joaten direnei?

Bi gauza. Batetik, erakusketaren helburua eta proiektuaren nondik norakoak azalduko dizkiet. Eta, bestetik, erakusketa bera nola antolatuta dagoen. Modu tematiko batean jarrita daude tresnak, eta arlo horiek kontuan hartuta, ibilbidea egingo dugu: mendiko auzoetatik hasiko gara, eta, pixkanaka-pixkanaka, jaitsi egingo gara ibai ertzera. ◀

L. MONTES - I. ETXEBESTE

«Herri baten eguneroko ondarea gordetzearen helburu nagusia, konplexu, kalko, imitazio eta uniformismoa gainditu ondoren, bere ondare higikor eta higiezinak tinko eta arretaz babestea da. Hauexek baitira, hizkuntzarekin eta folkloreakin batera, identitatea mantendu nahi duen herri baten ezaugarri eta ikurrak». Hala laburbiltzen du Aranzadi Zientzia Elkarte kide eta *Zaharkinak* proiektuaren arduradun Fermin Leizaolak egunotan Ferialekuan ikus daitekeen erakusketa. Proiektuaren izen bera jarri diote erakusketa horri, eta igandea bitarte izango da zabalik, goizez eta arratsaldez.

Ibilera luzeko proiektua da *Zaharkinak*. 1992an sortu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak Aranzadi Zientzia Elkartearekin egindako akordioarekin, eta Gipuzkoako udalek lagundutako ekimena ere bada izan. Tolosakoarekin hamaseigarren edizioa bete du, eta baserri munduko jardueraz gain —nekazaritza eta abeltzaintza-koak—, merkataritza, industria eta langintza tradizionalak, bai eta Tolosako etxe eta baserrietan erabiltzen ziren lanabes, garraio eta altzairuak biltzen ditu. «Garai batean arruntak ziren objektuek orduko bizimoduaren testigantza jasotzen dute», izan ere.

Eta erakusketa ulertu eta jarraituko bada, objektuak multzotan banatu dituzte antolatzaleek, atalka. Baserriko tresneriaren baitan daude sukaldeko tresnak, argizatzeakoak, altzari tradizionalak, erlijio-tasun herrikoari dagozkionak, garbitasunekoak... Baserriko lanabesen artean, berriz, lurra prestatzeko eskuako erremin-tak, goldatzeakoak, uzta biltzeko eta kimatzeakoak... Artzaintzako eta abeltzaintzako lanabesak, garraio sistemak: esku, lepota edo bizkarrean garraiatzekoak, arrastaka eramatekoak eta trakzioarako eta eusteko sistemak eta ehiza eta arrantza tradizionalako tresnak: zepoak eta tranpak ere badaude. Guztira, 1.000 objektu inguru.

Hala eta guztiz ere, *Zaharkinak* erakusketa dauden hainbat lanbide eta industrietako tresnak dira, agian, Tolosarekin lotura estuen dutenak. «Tolosaren izaera urbanoa kon-



Sagardogintza: kuela, garrafoia, saskia, enkortxadorea, barrika... L. MONTES



Txapelak josteko makina. L. MONTES



Jolas egiteko tramankuluak ere aurki daitezke. M. SOROA



Askotariko tresnak daude: txokolaterak, pertzak, kandeleroak, farolak... L. MONTES

tuan harturik, erakusketak industria arloko lantegi adierazgarrietako objektuak biltzen ditu, bai eta hainbat lanbide tradizionalen tresneria, hala nola: arotza, ebanista, errementaria, zapataria, txorroskileroa, pasteleroa, konfiteroa, papergilea, moldizategia, botika, abarketaria, guarnizioneroa...», dio Fermin Leizaolak.

Erakusketak biltzen dituen tresnetako asko bertako base-ritarrek eta artisauak eginikoak dira orain gutxi arte. «Jakina da herri baten orijinaltasuna ez datzala erabiltzen dituen kultura materialeko objektuen asmakuntzan, baizik eta objektuak bere eginez, ematen diren erabileran». Tresna guztiak zenbakitu, fitxatu eta erakusteko prestatu dituzte. Objektuak jende guztiari ezagutzera emateaz gainera, «baserri eta nekazal mundutik gaur aldendua dagoen jendeak orain urte gutxira arte Euskal Herriko ohiko bizitza ulertzea eta estimatzea nahi dugu erakusketaren bitartez».

Nondik gatozen. Horixe azalzen du *Zaharkinak* erakusketak. Jakin nahi?

Bisita gidatua, etzi arratsaldean

Tolosako *Zaharkinak* erakusketarako materiala biltzen aritu diren Fermin Leizaolak eta Aitzpea Leizaolak bisita gidatuak antolatu dituzte. Fermin Leizaolak lehengo ostiralean eman zituen azalpenak gaztelaniaz Ferialekuan, eta Aitzpea Leizaolak etzi, hilaren 24an egin behar zuen bisita gidatua, baina aurreratu egin da hitzordu hori, eta, hortaz, bihar bertan mintzatu da Ferialekuan diren objektuen inguruan. Euskaraz ariko da Leizaola etziko saioan.

Tresnen historia, bilakaera, nondik ekarritakoak diren, zertarako balio duten... azalduko du Leizaolak 19:00etatik aurrera. Materialei buruzko



Fermin Leizaolak egin zuen ostiralean bisita gidatua. L. MONTES

xehetasunak jakin nahi dituenak Ferialekura agertu besterik ez du, esandako orduan. Erakusketa igandera arte,

hilaren 26a, izango da zabalik Ferialekuan; goizez, 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 17:30etik 20:30era. ◀

GENERO INDARKERIA ▶

Gizon bat atxilotu dute neska-laguna erasotzeagatik

Tolosan bizi den emakumea haurdun dago eta kolpeak ditu buruan eta bizkarrean

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak F.J.H.H. 30 urteko gizonzkoa atxilotu zuen herenegun gauean Tolosan, us-tez neska-laguna erasotzeagatik. Emakumea haurdun dago —hiru hilabeteko—, eta kolpeak ditu buruan eta bizkarrean. Senarrarengandik banatzekotan zen emakumea, HIRZAK jakin ahal izan duenez.

Emakumezkoak jarritako salaketaren arabera, astelehen gauean, 21:30ak aldera, gertatu zen eraso. Bere gizarte-laguntzailearekin telefonoz hitz egiten ari zela, gizonzkoa mehatxuka eta irainka hasi zitzaion. Emakumezkoa etxetik alde egiteko maletak prestatzen hasi zen, eta, orduan, mutil-lagunak kolpeak eman zizkion buruan eta bizkarrean.

Ebakia besoan

Ertzaintzak adierazi duenez, liskarraren ondorioz «edallontzi bat lurrera erori zen eta zati askotan apurtu. Gizonezkoak beira zati horietako bat hartu, eta neska-lagunari ebakia egin zion besoan». Antza denez, emakumeak alde egitea lortu zuen etxetik, eta Tolosako Ertzaintzaren egoitzara jo zuen bertan salaketa jartzeko.

Geroago, Ertzaintza bikotearen etxebizitzara joan zen eta ustezko erasotzailea atxilotu zuen. Familia giroan biolentzia delitua egitea leporatzen diote. Bikotearekin bizi den 14 urteko semea senarteko batzuen etxera eraman zuten erizainek gizonzkoa atxilotzera joan zirenean. Ustezko erasotzailea polizia esku dago. Datozen egunetan galdeketa egingo diote, epailearen aurrean deklaratu baino lehen.

Neska bat behar da Tolosako JATETXE batean lan egiteko.
943 11 98 28

KEY-LAN
Sarrailgintza
Nafarroa etorb, 13 beheha - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

TEKNIKARIA BEHAR DA
Unibertsitate titulua • Ega • B1 gidabaimena
Baloratuko da: Herri txiki eta AGENDA 21en ezagutza CURRICULUM-ak IRAILAK 30erako.
TOLOMENDI 293 P.K. • TOLOSA

ANOETA ▶ GIZARTEA



Inaugurazioa. Haur Eskolako egoitzan egin zuten atzo inaugurazioa; Eusko Jaurlaritzako, Udaleko eta Ikastolako ordezkariak bertaratu ziren, besteak beste. G. AZKUE



Haurrak. 0 eta 2 urte bitarteko haurrak egongo dira Anoetako Haur Eskola berrian hemendik aurrera. G. AZKUE



Haur Eskola. Anoetako Haur Eskolak, sukaldia, jolasteko gela, seaska gunea eta aldatzeko txokoa izango ditu, besteak beste. G. AZKUE

Anoetako Haur Eskola inauguratu dute jada

Eusko Jaurlaritzako eta Patzuergoko ordezkariak izan ziren Anoetako Haur Eskolako eraikina ikusten inaugurazioan

GARAZI AZKUE

Gustura agertu dira Anoetako Udaleko ordezkariak, Haur Eskola inauguratu baitzuten atzo herrian. Inaugurazio ekitaldian, Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Hezkuntza sailburuordea Abel Ariznabarreta, Patzuergoko gerentea Maite Larrañaga, Gipuzkoako Haur Eskoletako koordinatzailea Xabier Otaegi eta Anoetako Ikastolako zuzendaria Dani Maiza elkartu ziren Haur Eskolako egoitza berrian.

Inaugurazio ekitaldi hone-

tan, Fidel Azpirozek, Anoetako Ikastolarekin izan duten harremana azpimarratu zuen, «proiektua hasieratik Ikastolarekin harreman zuzenean gauzatu da».

Orain urtebete hasi zen Udala, Anoetako Ikastolarekin batera, proiektu honetan lanean, proiektua gauzatu, baimenak lortu... Lan honen ondoren, egoitza txukuntzeari ekin zioten duela pare bat hilabete. Eta irailaren 15etik aurrera daude lau haurrak hezitzailearekin.

Anoetako Udalak Eusko Jaurlaritzarekin gauzatu duen

hitzarmenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak hezitzailea eta ekipamendua jarri du; Anoetako Udalak, berriz, egoitza eta beraren mantenua hartu ditu bere gain. Egoitzak, jolasteko gunea, sukaldia, komuna, seaska gunea eta aldatzeko gela ditu.

Azpiroren esanetan, «eskaerak gora egiten duen neurrian ekipamendua ere zabaltzen joango gara. Gainera, eragozpenik gabe eman dezakete izena haurrek oraindik ere».

Oraingoz goizetan bakarrik egongo da irekita Haur Eskola.



Aldarrikapen eguna

ANOETA ▶ Igandean izan zuten anoetarrek Aldarrikapen eguna; horretarako, Erriora egin zuten guztiak. AHTren aurka egiteko, herri borondatearen alde, *apartheid*-aren aurka eta euskal presoen eskubideen alde egiteko bildu ziren 25 lagun inguru. Hasiera batean plazatik bertatik ateratzea pentsatzen bazuten ere, eguraldi txarra zela-eta, Iturriotzetik joatea erabaki zuten. Mendi bueltaren ostean, afari-merienda egin zuten 35 bat lagunek Gaztetxean. HITZA

INGURUMENA ▶

Mugikortasun Asteak aurrera darrai bailaran

Gaur izango da Autorik Gabeko Eguna; herri askotan autoentzako kaleak itxiko dituzte

G. AZKUE

Mugikortasun Iraunkorreko Astea, Autorik Gabeko Eguna izango da gaur. Iruran eta Zizurkilen kale batzuk itxita egongo dira egunean zehar.

Iruran, Kale Nagusian ibilgailuentzako karril bat itxita egongo da eta San Migel plaza oinezkoentzat bakarrik irekiko dute. Horretaz gain, Etxezarrika kaletik barrena haurrak eskolara oinez joango dira. Eta LH3ko ikasleek eta jubiletuek zarata, auto eta bizikle-

ten erabilera edota trafiko neurketak egingo dituzte. Eta Ikastolan murala marraztuko dute arratsaldean.

Zizurkilen, ginkana erraldoia egingo dute haurrentzat eta Ernio bidea eta Ubare itxita egongo dira autoentzat.

Anoetan, berriz, Ikastolan ekintzak egingo dituzte egun osoan zehar: idazlanak, ginkana, mugikortasun tailerrak... 19:30ean, berriz, Angel Cuerdoren hitzaldia entzuteko aukera izango da udal areto nagusian.

Dantza Aretoa
ERKINTZA
Aerobik, stepak, pilates metodoa
dantza modernoa - Jazz, latinoak,
areto dantza, baleta...
Tlf: 943 67 41 49
Euskal Herria, 17-behea • 20400 IBARRA

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818 Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

BIDEGOIAN ▶ ERLIJOIA

Oporretan ere, dirua biltzeko lanean

Bolivian hamalau urte daramatza Arantxa Aburuza mojak; udan etxera bueltatu da etxeokak bisitatzera



Arantxa Aburuza San Antonio del Parapetin bizilagunen ondoan. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Bolivian, San Antonio del Parapetin bizi da Arantxa Aburuza moja bidegoiandarra. Hiru urtez behin etxekoei bisita egitera gerturazten da Bidegoianera; aurtien bertan izan da; deskantsatzeko egun gutxi izan ditu, hala ere, Arantzazun lanean egon baita «dirua biltzeko asmoz». Beti ditu gogoan han utzitakoak. Lehen ere, udan Ogi Ona okindegian ogia egiten ikasten aritu zen. Orain, bidegoiandarrak ikasitakoari esker, hogeita bost kilo ogi banatzen dituzte Boli- viako herrixketan barrena.

Beste bi mojekin batera, 11 herriren ardura eramaten du eta bertan daramatzen hama-

lau urtetan «denetarik egitea» tokatu zaiola azaldu du: «Bizi naizen lekuan parrokiak estatuaren funtzioa betetzen du; ez dago apaizik, ez medikurik... eta gu zulo guzti horiek bete- tzen saiatzen gara».

Aburuzak lan egiten duen zonaldean 11 herrixka daude 120 kilometroko distantzian. Lehentasuna, herri guztietan ura eta argia egotea dela azaldu du. Bera Boli- viako zonalde horretara iristean «kamioia ontziz bete eta ur bila joaten nintzen errekarara. Ontziak urez go- raino bete eta herrira erdi pa- rerraino beteta iristen ziren».

Urte hauetan, hogeita bi kilo- metroko azpiegitura osatu dute eta hiru herrietan ura eta argia dago, egun. Lan gogorra

izan dela sentitzen da Aburu- zaren hitzak entzutean: «Ura non zegoen bilatu, toma egin, tuberiak jarri eta goitik behera azpiegitura jarri genuen».

Kamioiean lanean

Igandeetan kamioia hartu eta mojak elizak dauden herrietan uzten ditu Aburuzak. Ondoren, bueltan beren bila pasatzen da.

Kamioiarekin alde batetik bestera ibiltzen da; gaixoak, haurdun dauden emakume- ak... erietxera eramaten ditu eta elikagaiak herrietan bana- tzen ditu, besteak beste. Lanik gogorra «hildakoen gor- puak leku batetik bestera era- matea» dela aipatu du.

Kamioiarekin abentura ugari izan ditu: «Haurdun zegoen emakume bat erietxera eram- aten ari nintzenean, haurra ba- zetorrela esan zidan; ama oso gaztetxoa zen eta nik bada ba- serrerian, txekorrak jaiotzen ikustean ikusitakoa gogoratuz haurra mundura ekartzea lortu nuen. Orain, kaletik *amatxo* deitzen dit haurrak», dio pozik Arantxa Aburuzak.

Gustura agertu da, bestalde, Bolivian daramatzen urteetan somatu dituen aurrerapau- suak kontatzean: «Lehen hau- rrak eskolara eramateko esfor- tzurik ere ez zuten egiten gura- soek; orain ia gehienak joaten dira eskolara. Erietxera ere, si- niskera desberdinak medio ez omen ziren joaten; egun, «gaiz- ki aurkitzen diren bezain lais- ter deitzen digute erietxera eramateko eskatuz», dio bida- niarrak.



Bazkaria, pilotalekuan

ALEGIA ▶ Euria egiteko arriskua zegoela-eta, Alegiako pilotalekuan egin zuten Languarre Eguneko babarrun-jatea pasa den igandean, irailaren 19an. Bazkariaren aurretik, eta babarrunak borborka ari ziren bitartean sagardo dastaketa egin zuten. 150 lagun inguru bildu ziren; babarrunak, odolkia, Ibarra-ko piperrak, mahatsa... jan zuten bertaratu zirenek. HITZA



Hurrengo urtera arte

ALEGIA ▶ Herriko dantzariak berriro ere dantza emanaldiak eskaintzen hasi dira udarako atsedendaldiaren ondoren. Kalebeherako jaietan eskaini zuten saioa igandean, irailaren 22an, txikien eta helduen taldeek. Ondoren, bazkaria, olinpiadak... egin zituzten Kalebeherako jaiak hurrengo urtera arte agurtuz. O.ESKITXABEL

iragarki laburrak ▶



Aizarnazabal. Txakoli-saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Albiztur. Etxe rustikoa salgai; hiru solairukoa. Solairu bakoitzak 120 m², eta 200 m²-ko lursailarekin. Bizitzera sartzeko prest.

Anoeta. Etxea duplexean salgai; garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioa salgai; erabat garbia, argitsua eta garabiarekin.

Donostia. Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m²-ko bulegoa salgai; banatzeko aukera.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza

salgai Colon pasealekuan. Bista zoragarriak ditu eta erabat berrituta dago.

Donostia. Elkano kalean, berritzeko etxebizitzak daude salgai.

Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baserria salgai; berritzeko.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioa salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza.

Berritzeko. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Irura. 52 m²-ko apartamentua salgai; beheko solairuan lorategiarekin.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitzak; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

Lasarte. Egoera bikainean dagoen 62 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

Legerreta. 1.000 m²-ko pabilioa salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioa, eraikuntza berrikoa.

Segura. Erabat berritua dauden 60 m²-ko eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.

Tolosa. Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldia, bainugela eta trastelekuarekin.

Tolosa. San Esteban auzoan, 75 m²-ko etxebizitza salgai; kanpoaldera begira eta oso eguzkitsua.

Tolosa. Nafarroa etorbidean etxebizitza saltzen da; garajea erosteko aukerarekin.

BERROBI ▶

‘Martintxo’ baserria kiskali da, kalte pertsonalik izan gabe

Inor ez da bertan bizi; biltegi bezala erabiltzen zuten eta animaliak ateratzeko denbora izan zuten jabeek



Suhiltzaile bat atzo arratsaldean *Martintxo* baserriko sua itzaltzen. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Berrobiko Ospela auzoan, sutea izan zen atzo eta ondorioz *Martintxo* izeneko baserria kiskalita geratu zen. Arratsaldeko 14:00ak jo gabe zirenean gertatu zen guztia herriko bizilagun batek kea ikusi eta segituan baserriko jabeak telefonoz hots egin zienean.

Lesmes Belauntzaran eta Mari Karmen San Sebastian dira *Martintxo* baserriko jabeak. Ez da, ordea, inor bizi bertan. Duela urte batzuk, handik gertu, beste etxe batera joan ziren bizitzera eta, gertu badago ere, ez dute baserria bertatik ikusten, beraz, herritarrak izan ziren kea lehenbizi ikusi zutenak eta honen abisua eman zienak.

Herritarren deia jaso ondoren, Mari Karmen San Sebastian baserria gerturatu zen gertatzen ari zenaz jabetzeko eta baserria erabat kiskaltzen ari zela konturatu zenean suhiltzaileei hots egin zien.

Tolosako suhiltzaileen hiru kamioi iritsi ziren sutea gertatu

Bigarrena leku berean



Seskea-berri baserria sutan, urtarrilaren 15ean. DANI GIBELALDE

Pasa den urtarrilaren 15ean gertatu zen beste ezbeharrak Berrobiko Ospela auzoan, *Seskea-berri* baserria sute baten ondorioz erabat kiskalita geratu zenean. Kasu hartan ere ez zen kalte pertsonalik izan baserrian bost pertsona bizi baziren ere eta sutea gertatu zen unean barruan zirela kontuan hartuta. *Seskea-be-*

rriren aldamenean dagoen baserria da *Martintxo* izeneko eta atzo sutea izan zena. Zortzi hilabeteren buruan bigarrena gertatu da leku berean, metro gutxira. Bietan ere hondamendia handia izan da eta etxe gabe ere geratu da familia bat, baina kalte pertsonalik ez da kontatu beharra izan.

zen lekura minutu gutxiren buruan, baina, hala ere, ezin izan zuten ezer egin, iritsi zirenerako guztia kiskalita baitzegoen eta sua itzaltzeari ekin zioten gehiago zabaldu ez zedin.

Denbora gutxiren buruan teilatua erorita zuen baserriak, eta ondorioz, barrualde osoa hondaturik geratu zen, kanpotik kalteak nabarmenak zirelarik. Baserria zaharra izanik, ulertzekoa da hau, egur asko izaten da eraikuntza hauetan eta baserri osora zabaldu ohi da segituan sutea.

Bizilagunak eta baserriko jabeak eta senitartekoak gerturatu ziren suhiltzaileek beraien lana egiten zuten bitartean. Pena eta harridura aurpegiak ziren nagusi. Sutea hain azkar nola zabaldu zen galdetzen zioten elkarriz, baserria erabat hondaturik ikusten zuten bitartean. Eta, bestetik ezer egiterik ezin izan zutela eta atsekabea nabari zen.

Jabeak eta senitartekoak ziren, hala ere, une okerrera pasatzen ari zirenak hondamendi hori ikusita. Guztiek ere, gauza bera zioten, hain denbora gutxian nola zitekeen bi baserri erretzea, orain dela zortzi hilabete erre zen *Seskea-berri* baserria gogoratuz. Hain justu ere, *Seskea-berri* baserriare aldamenean baitago *Martintxo* baserria.

Sutearen hipotesiak

Antza denez, Mari Karmen San Sebastian *Martintxo* baserriko jabearen emaztearen arabera «senarra, goizean makina batekin aritu da burnia moztzen eta ondoren bazkaltzera joan da; baliteke burniarekin lan egin ondoren sortutako txinpartek eragitea sua».

Sutea gertatu zen unean senarra bilera batean zegoen eta beranduago ohartu zen hondamendiaz, ezer ezin izan zuelarik argitu.

Martintxo baserria biltegi moduan erabiltzen zuten jabeak azken urteetan. Lehen baserri horretan bizi baziren ere, duela urte batzuk Lesmes Belauntzaran eta Mari Karmen San Sebastian beste etxe batera joan ziren bizitzera, lehenengo baserritik gertu. Horretaz gain, ganaduarentzat-eta, abeletxe berri bat eraiki zuten baserri zahararen azpialdean. Beraz, *Martintxo* baserria tresneria gordetzeko eta oilategi moduan erabiltzen zuten.

Badirudi sutea zabaldu aurretik lortu zutela bertan zeuden oiloak ateratzea, animalien aldetik ere hildakorik izan gabe.

Kalteak nabarmenak dira beraz, denbora gutxian berri suak erasotu duen Berrobiko zonalde honetan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldikaria: 30 07 32
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz I. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 67 09 15.
Larraia M.I. Elbarren, 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldeko_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoeta-idea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Leitza. Pertsona bat behar da asteburuetan Leitza taberna batean lan egiteko.
619 45 02 49.

LEITZA ▶

Udan atseden hartuta, Mendibilen irteera berria

Iganderako Gorbeiarra joateko deialdia egin du, hilabeteroko ateraldiekin jarraituz

J. ASTIBIA

Mendibil mendi taldeak ikas-turteari hasiera eman nahi diola eta, igande honetarako mendira joateko aukera eskaini du, nahi duen guztientzat, urte guztian zehar egin ohi duen gisan.

Igandean Gorbeiarra egiten dute irtenaldia, Gorbeia mendira. 1.475 metroko altuera duen Araba eta Bizkaia arteko muga inguruan dagoen mendira, eta Gorbeia aldeari izena ematen diona gainera, mazizo horretako gailurrik garaiena izaki. Mendia bera garbi samarra da, larrea, baina gailurretik dagoen bista ere halaxekoa da, garbia, egun argia suertatuz gero. Bestalde, mendi honen gailurrean dago, Euskal Herriko dorre edo gurutzarik altuena omen dena ere eta kontatzen dutenez, sinestunek bizkarrez garraiatutakoa, puskaka, noski.

Autobusa osatuz

Euskal Herriko paraje hau ezagutu nahi izanez gero, beraz, jakin, igande honetan, 8:00etan aterako direla Leitzako plazatik, autobusez. Noski, izena aurrez eman behar da, Astiz edo Maimur liburudendan, bihar osteguna, hilak 23, baino lehen eta 5 euro ordaindu beharko dira autobuserako.

Gorbeiarra igotzeko ibilbidea ez dago zehaztua oraindik, antolatzaileek adierazi dutenez, autobusa osatzeko haina jende izena ematen duenaren arabera izanik hori: «Autobusa osatzeko nahiko jendea animatzen bada, igo eta jaitsi, bide desberdinetatik egiteko aukera izanen dugu. Bestela, kotxez joan beharko dugu eta handik joan-etorria, bide beretik egin beharko da», zioten, «beti ere aurreneko aukera hobe da, paraje gehiago ikusteko ere», erantsiz.

Irteera hau azaroan egitea aurreikusia zuten, urteko egitarauan, baina aurreratu egin dute, irailekoa, berriz, beste baterako utziz.

ARESO ▶ GIZARTEA

Ehizarako hainbat posturen enkantea egiten ari dira Areson

Aurreko larunbateko saioaren ondoren, orain 'sexteoa' egiteko epea zabalik dago, behin betiko esleipenerako



Urteaga parajeko 27 ehiza postu daude enkantean, Eluseder industriagunetik gora, Berastegiko mugarainoko mendi horretan dauden guztiak. Larunbatean esleituiko dira behin betikoz. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aurreko larunbatean egin zen, ehiza-postu horien enkantearen lehendabiziko jarduna, eta ostiral arte, orduan egindako eskaintzak *sexteatzeko* aukera dago, datorren larunbata, hilak 25, egiten den azken saioan, jada, behin betikoz esleituiko direlarik.

Baina zer kontu dira, *sexteoa* aren hauek, enkanteak?... Bada, «kontu» hauek argitzen saiatuko gara, Aresoko berri emanez.

Areson ehizarako dituzten mendi bateko postuen enkantea egiten dute urtero, ehiza garaia iristen ari delarik: Urteaga parajearen dauden 27 ehiza postuena. Mendi hau Eluseder industriagunetik gora, eskuine-

ra, Berastegiko mugarainoko hori dena da eta «birigarrotarako batetik —ehiza postuak zenbakiz ezagutzen dituzte ehiztariek— hasi eta laurainokoak oso onak dira eta usotarako, berriz, hogeita batetik, hogeita laurainokoak», adierazi digutenez. Edozein moduz, herriko ehiztari elkarteak beste 36 ditu bere esku, horietan herriko ehiztariak ibiltzeko. Orotara, elkarteak 70 bat bazkide omen dira eta herrirako gelditzen direnekin gustura omen daude. Postu guztiak egitea eta berritzea, ordea, hauen esku izaten da urtez urte.

Herri askotan egin ohi dira horrelako enkanteak, izan ere udal tikiakentzat diru iturri esangarria izaten baita hortik lortutakoa: «Iaz, Areson, 29.801,66

euro garbi eskuratu zituen herriak eta Udalaren ohiko sarreren %15-20 suposatzen du horrek. Herri tikiakentzat arnasa hartzeko bidea da», zioten udal arduradunek.

Ahozko posturak

Gauzak horrela, aurreko larunbatean hasi zen aitatutako ehiza postu horien enkantea. Hasi diogu, izan ere enkanteek hainbat atal izaten dituzte, mota desberdinen arabera, noski. Areson egiten ari direna, ahozko posturen bidezkoa da. Alegia, enkantera atera diren 27 postuak, zozketaz erabakitako ordenean, herriko albintek aurkezten ditu, irteerako prezioa 60 euro izanik. Enkan-tean parte hartu nahi duenak,

kopuru horretatik gora, «tantoak jo» behar ditu, izena eta zenbat gehiago eskaintzen dituen adieraziz, jarraian albintek «postura» horiek «kantatu» egiten ditu, mahaian dauden arduradunek, enkantearen martxa zaindu eta bermatuko dutenak bestalde, kontuak egin ditzaten. Tanto bakoitzeko 10 euro gehitzen zaizkio prezioari. Azkenik, hobetzeko 3 aldiz dei egin ondoren eta erantzunik ezean, prezio altuena eskaini duenarentzat gelditzen da postua, behin behineko. Eta hauxe zen aurreko larunbateko saioaren nondik norakoa: postu guztiak esleitu ziren, zenbait hiru mila eurotan, gainera.

'Sexteo'-ko epea zabalik

Baina behin behineko esleipen horri *sexteoa* epeak jarraitzen dio eta, kasu honetan ostiraleko 19:00ak arterainoko denbora dago horretarako. Aresoko Udaleko idazkaritzara bertara joanez egin daitezke eskaintza berriak, beti ere, aukeratutako postu horren hasierako esleipen prezio horren seiren bat seinaletako bertan utziz. Dagoeneko badira postu batzuk *sexteoa* jasan dutenak, han bertan egiaztatu izan dugunez.

Epe hau bukatu eta azkenik, hurrengo larunbatean egiten da Urteagako puesto hauen behin betiko esleipena, berriz ere, *sexteatutakoekin* beste enkante bat eginez. Kasu hauetan guztietan, hasierako prezioa, aurreko saioko prezioari seirena gehituz lortutakoa izanen dute eta hortik gora, hamarna euroko tantoak jo beharko dituzte berriz ere, kentzez gero. Ez bada pujaetzen, postuaren jabe izanen da, behin betiko, *sexteatzailea*. Kasu berean egokitu liratekeen ehiza-lekuak ere.

Beraz, *sexteoa* egiteko aukera ostiral arte dago eta larunbatean, behin betiko esleipen saioa izanen da, arratsaldeko zazpietan.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako
galdera berria:

Donostiako
Zinemaldira
joateko ohiturarik
ba al duzu ?

BAI ▶ EZ ▶ ZENBATETAN?



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ikaztegieta. *Helduak, haurren zaindari* hitzaldia kiroldegian 16:30ean Cristina Otermin hizlari dela. **Villabona.** Hirugarren Adineko XX. Astean, senideen bisita Santiago egoitzan 17:00etan eta *luncha* bertakoentzat.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Miren Gonzalezen *Puzzleak*, Aranburun. **Tolosa.** *Zaharkinak*, hilaren 26a arte, Ferialekuan. **Tolosa.** May Colmenero pintura eskolako ikasleean lanak Aranburu Jauregian.

AUTORIK GABEKO EGUNA

Anoeta. Ikastolan egun osoan zehar idazlanak, deklamazioa eta sari banaketa, ginkana eta tailerrak. Angel Cuerdoren diapositiba emanaldia udal areto nagusian 19:30ean. **Iruña.** Ikasleek sarrerairteak oinez egingo dituzte; kale Nagusian karril bakarra; plaza oinezkoentzat bakarrik eta neurketak egingo dituzte ikasleek eta jubilatuek (zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, garraio publikoaren erabilera, bizikleten erabilera...). Arratsaldean murala margotuko dute. **Tolosa.** Trianguloan, Euskal Herrian plazan eta San Frantziskon 17:00etatik 20:00etara haur liburutegia, bizikleta jokoak, herri jolasak, pintatzeko txokoa, rokodromoa eta tirolina, txokolate-jatea eta bizikletak konpontzeko tailerra. Euria eginez gero, jolasak Beotibar frontoian izango dira. **Zizurkil.** Hainbat bide autoei itxita eta ginkana erraldoia haurrentzat.

Autorik ez hartu gaur

TOLOSALDEA ▶ Atzo haurrentzako ekitaldiak izan ziren Anoetan, Iruran, Tolosan eta Zizurkil; gaur Autorik Gabeko Eguna izango da



Haur eta heldu ugari bildu zen atzo arratsaldean Euskal Herria plazan. GARAZI AZKUE

ERREDAKZIOA

Garraio publikoak eta bizikleta gehiago erabiltzea, oinez gehiago ibiltzea, autoa ahalik eta gutxien mugitzea.... Horiek dira Mugikortasun Iraunkorraren Astearen helburuak. Egundak haurrentzako jokoak, txokolatea, ipuinak, bizikleta tailerra... izan ziren lau herri horietan.

Gaur egun garrantzitsua izango da, mundu osoan egiten den Nire Autorik Gabeko Eguna. Sentsibilizazio hori bilatu nahian, ahalegin berezia eskatzen diete udalek eta beste erakundeek herritarrei: autorik ez erabiltzea, ahal bada. Eskualdeko kale eta plaza asko autoentzat itxita egongo dira egundak zehar. Horrekin batera, Mugikortasun Iraunkorraren Astea bukatzeko, ekitaldi ugari prestatu dituzte udalek (ondoko Agendan ikus dezakezue egitaraua).



Txikiak arretaz jarraitu zuten pailazoan saioa. G.AZKUE



Txokolatea azkar bukatu zuten bildutakoek. G.AZKUE

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aitor Zabala eta Sergio Goenaga. Aitorrek gaur 4 urte beteko ditu eta Sergiok astelehenean 7 urte bete zituen. Zorionak familiaren partetik. A ze pareta, karakola ta bareta!



URTE ASKOAN

Arantxa Lopetegui (Oikia). Zorionak senide, lagun eta Realeko Izar peñaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!